

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Kultura

10 ildoko dirulaguntzen -2022an egitekoak diren kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak- deialdiaren ebazpena

Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko otsailaren 4ko erabakiaren bitartez onetsi ziren 10 ildoko dirulaguntzen -2022an egitekoak diren kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak- berriazko oinarriak eta deialdi publikoa (2022ko otsailaren 21eko ALHAOn, 22. zenbakia), laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 200.000,00 euroko zuzkidurarekin, udal aurrekontuko 23.12.03.3341.489.33 partidaren kontura, eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptu hauek ezarri ziren bertan:

A. Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatutak.

B. Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazio eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatutak eta kudeatutak.

2022ko otsailaren 21ean argitaratu ziren ALHAOn 10 ildoko dirulaguntzak -kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak- emateko deialdiaren laburpena eta berriazko oinarriak.

20 egun baliaduneko epea zegoen eskabideak aurkezteko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta dirulaguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuz, eta Gasteizko Udalaren 2022ko dirulaguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorretan xedatutakoari jarraiki, 2022ko maiatzaren 9an bildu da Balioespen Batzordea, eta eskatutako dirulaguntzak emateko edo ukatzeko proposamena egin du, berriazko oinarri arautzaileetan adierazitako irizpideekin bat etorritik.

Gainera, deialdiaren oinarri espezifikoetatik laugarrenarekin bat etorritik, Balioespen Batzordeak Gobernu Batzordeari aurkeztu dio, aurkeztutako proiektuak baloratu ondoren, eta egiaztatu ondoren zer kreditu geratzen den B kontzeptua garatzetik (Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazio eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak) sobera geratu den kreditua A kontzeptura transferitzea (Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere):

- Dirulaguntzaren onuradun diren proiektuen zerrenda.
- Berriazko oinarrietako 9 klausulan adierazitako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.

- Dirulaguntza-deialdiaren berariazko oinarrietako 2.2 klausulan adierazitako kasua delako, dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.
- Berariazko oinarrietako 3.2 klausulan adierazitako kasua delako dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.
- Dirulaguntza-deialdiaren Berariazko oinarrietako 11.2 klausulan adierazitako kasua delako, dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.
- Dirulaguntza-deialdiaren Berariazko oinarrietako 14 klausulan adierazitako kasua delako beste dirulaguntza batzuekiko bateraezintasunagatik, dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 231203.3341.489.33 partidari, Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkariak, honako erabaki-proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari, alkateak eskumenak eskuordetzeari buruz 2020ko otsailaren 24an emandako dekretua baliatuta,

Erabaki-proposamena

Lehen. Deialdiaren eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu, eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi ondoren, dirulaguntza hauek ematea, zenbateko hauekin:

A kontzeptua. Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzuzkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatutakoak.

ENTITATE ESKATZAILEA	PROIEKTUA	PUNTUAK	DIRULAGUNTZA ONETSIA (EUROTAN)
COLECTIVO MONSTRENKO KULTUR ELKARTEA	Aitzina folk, 10. urteurreneko jaialdia	79	11.017,34
PLAY GASTEIZ	Gasteiz, zinema hiria	76	10.699,54
ASOCIACIÓN ALTRASTE DANZA	Danzalava 2022	75	8.828,00
EL MONO HABITADO KULTUR ELKARTEA	150gr jaialdia	75	8.828,00
EDUARDO HERNANDO VILARRODONA	Antzerki pixka bat	75	8.828,00
ZINHEZBA KULTUR ELKARTEA	Gaztefilmfest 2022	74	8.474,88
SINKRO MUSIKA ELKARTEA	2022/23 Bemaola zikloa	73	8.121,76
INMERSIONES KULTUR ELKARTEA	Euskal Herriko artista berrien 15. biltzarra	71	7.415,52
DZAST ELKARTE KULTURALA	Jalgi! Jaialdia Voz	71	7.415,52
DAZZ JAZZ ELKARTEA	Jazza guztiontzat	70	5.296,80
COLECTIVO MONSTRENKO KULTUR ELKARTEA	2022 Jardunaldi Monstrenkoak	69	6.709,28
ADURTZA DANTZA TALDEA ADURDAN ELKARTEA	Durtza batuz IV	69	2.413,58
ERAKUSMETA KULTUR ELKARTEA	Zas 2022	69	6.709,28
HAZ.KOOP. ELK. TXIKIA	Al margen del deterioro	69	6.709,28
GEU GASTEIZ EUSKALDUNA	Geu fest(a) Geu elkartearen 30 urteurren festa"	68	6.356,16
DAVID ELEJALDE FERNANDEZ	Aztarna Beltza Festival	67	6.003,04
ZABALGANA BATUZ	Mariturriko historiaren 2. astea	66	5.296,80
ATIZA KOMIKI MARRAZKILARIEN ELK.	Crash Cómico 2022	65	5.296,80
EUSKADIKO LIBURU ZAHARREN ALORREKO ENPRESABURUEN ELKARTEA	Antzinako liburuen XXVII. azoka.	64	4.943,68
ARROXBOLA SORMEN ELKARTEA	Scratxe gaua 16	64	2.833,35
BENDERA KULTUR ELKARTEA	Afrikaldia 2022	64	4.943,68
MULIXKA DANTZA ELKARTEA	Zabaldantzan	63	1.264,17
GASTEIZKO GANBERA- MUSIKAREN LAGUNEN ELKARTEA	Gasteizko XV. Nazioarteko Musika Jaialdia	63	4.590,56
JARE EUSKAL KULTUR ELKARTEA	Jare dantza taldea	63	719,48
IN SITU ART KULTUR ELKARTEA	In situ art Festival 2022	62	4.237,44
URBAN ROCK CONCEPT S.KOOPÉRATIBA TXIKIA	Urribeltz metal fest 2022	61	3.884,32
ARABAKO JAIOTZAZALEEN ELKARTEA	2022ko jarduera-proiektua	61	3.884,32
PARASITE KOLEKTIBOIA ARTE- ETA KULTUR-ELKARTEA	2022ko Zurrumbiloa	60	3.531,20

ENTITATE ESKATZAILEA	PROIEKTUA	PUNTUAK	DIRULAGUNTZA ONETSIA (EUROTAN)
KOMEDIALDIARABA ELKARTEA	Komedialdia 2022	60	3.531,20
ARABAKO ATENEO ERREPUBLIKANOA	Ateneo errepublikanoaren kultur proiektuak	59	1.677,32
ARAÑA DEL ROCK PRODUCCIONES KULTUR ELKARTEA	X. Osteguna Rock Festival.	57	2.604,26
KIKUTE ELKARTEA	Arabaclick 2022	57	2.604,26
PEDRO MARIA ARRIOLA AGUIRRE	Judimendi auzoko liburua	56	2.295,28
KORZINE KULTUR ELKARTEA	Euskadiko hiriburuko film laburren nazioarteko jaialdia. Coff Gasteiz	54	1.677,32
GUILLERMO LAUZURICA RUIZ DE URBINA	Cd	54	1.677,32
SWINGVERGÜENZA ELKARTEA	Gastroswing	54	1.677,32
ARITZ LOPEZ GOMEZ	Larrua Lab	53	1.368,34
JUAN ARROYO SALOM	Siriari buruzko erakusketa Mendozako dorrean	50	441,40
			184.805,80 euro

B kontzeptua. Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazio eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduerak eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatuta eta kudeatuak.

ENTITATE ESKATZAILEA	PROIEKTUA	PUNTUAK	DIRULAGUNTZA ONETSIA (EUROTAN)
BIZTANLE AFROAMERIKARREN AFRO ELKARTEA	Mugak	71	3.089,80
RAÍCES DE EUROPA KULTUR ELKARTEA	Europako kulturaren XVIII. jardunaldiak	69	3.531,20
LANDAZURI ELKARTEA	Gure kultura-ondarea, zenbait diziplinaren eskutik Hitzaldi-zikloa	61	1.146,93
ASVE – SOLIDARIDAD VASCO ECUATORIANA ELKARTEA	Hablado de cultura	61	3.531,20
ESTIBALIZKO AMA ELKARTEA	Arabako Erromanikoaren Interpretazio Zentroa	52	1.500,76
ASME MAURITANIA-EUSKADI ELKARTEA	Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa	52	1.500,76
MÚSICOS SOLIDARIOS SIN FRONTERAS ELKARTEA	Painita dokumentala	50	882,8
			15.183,45 euro

Horrenbestez, Balioespen Batzordearen proposamena onartzen da, B kontzeptuan (dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, kultura gizarteratze eta kohesio sozialaren balio gisa garatzera, kulturaren eremuko garapen pertsonalera, ezagutza erraztera eta sormena sustatzera eta abar bideratutako jarduerak eta programak) soberan geratu den kreditua A kontzeptura (hirian erreferenteak diren edo Gasteizko edozein aurrekontu-esparrutan gehieneko kreditua gainditzen duten ekitaldiak, jaialdiak eta programak) aldetzeari dagokionez.

Dirulaguntza honen xede diren proiektu guztiek diruz lagundutako jarduerak egiten den unean indarrean dagoen araudian aurreikusitako osasun-neurriak bete beharko dituzte. Halaber, espazio publikoa okupatzen bada, Gasteizko Udaleko Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailak emandako baimenak izan beharko dituzte.

Ezingo da dirulaguntzaren zatirik ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituen arte, ez eta dirua itzultzeko prozedura ebatzi delarik zordun bada ere.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

Bigarrena. Berariazko oinarrietako 9 klausulan ezarritako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik, (Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehieneko eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira) dirulaguntza ukatzea honako hauei:

– AkelarreTxaranga kultur eta musika elkarteak. 31 puntu lortu ditu AkelarreTxaranga 25. urteurrenaren proiektuak.

– Guerrilla Kulturala Elkarteak. 48 puntu lortu ditu Guerrilla Kulturala Elkarteak aurkeztutako Guerrilla Ekintza 2022 Felicidad proiektuak.

– MartinTtipia Kultur Elkarteak. 44 puntu lortu ditu Giza Habitat Ezkutua proiektuak.

– Sofia Martínez Ramírez. 40 puntu lortu ditu Kamerata Gasteiz Kontzertua proiektuak.

Hirugarrena. Ondoko entitateei eskatutako dirulaguntza ezezteak, arrazoi hauek direla eta:

A. Berariazko oinarrietako 2.2 klausulan ezarritako kasua izateagatik:

– Jimmy Jazz elkarteak aurkeztutako GazteTalent 2022 proiektua.

B. Berariazko oinarrietako 3.2 klausulan ezarritako kasua izateagatik:

– Vedruna Educación Fundazioa. Fundazio horrek Madrilen du egoitza.

C. Berariazko oinarrietako 11.2 klausulan ezarritako kasua izateagatik:

– Saure SLU Argitaletxeak aurkeztu duen Bienal Luccy books proiektua.

– Amezi Txiki guraso elkarteak aurkeztutako Zabaliburu (Liburuaren lehen astean Zabal-ganean) proiektua.

– Ipar-Arriaga auzo-elkarteak aurkeztutako 2022ko San Joan gauean Napoleonen garaiko X. asteburu kulturalaren proiektua.

– Krisare kultur elkarteak aurkeztutako 2022 Krisare Foroa proiektua.

– Vitoria 2013 historia elkarteak aurkeztutako Utrecheko Adrianen jaiotzaren V. Mendue-
rrenaren ohorezko domina.

D. Berariazko oinarrietako 14 klausulan ezarritako kasua izateagatik:

– Seneca Andaluziako kultur zentroak aurkeztutako aste kulturalak proiektua.

Laugarrena. Bi zatitan ordainduko dira dirulaguntzak: lehenengo, dirulaguntzaren ehuneko 80 ordainduko da; gainerako ehuneko 20a, berriz, gastuak justifikatu ondoren ordainduko da, 23.12.03.3341.489.33 aurrekontu-partidaren kontura.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

Seigarrena. Erabaki honen kontra, aurkeztu ahal izango da:

a) Aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean -jakinarazte-egunaren biharamunetik-, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik, eta horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

b) Edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik.

Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zuzendaria
FRANCISCO JAVIER GALVE BORJA